

Laudioko Udala

Laudioko Udalaren Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko apirilaren 3 egunean hartutako erabakiaren laburpena. Zeinaren bidez onetsi zen Genero-indarkeriaren Biktima izan diren Emakumeei Laguntzeko 2020ko Programaren deialdia.

Azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorraren, Diru-laguntzei buruzkoaren 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, argitara ematen da deialdiaren laburpena. Horren testu osoa kontsulta daiteke Diru-laguntzen Datu Base Nazionalean <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>

Lehenengoa. Onuradunak.

Genero-indarkeriaren biktima izatearen egiaztagiria izan gabe ere eta erasotzailea salatu ez arren, genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.

Bigarrena. Xedea.

Laguntza ematea genero-indarkeriaren biktima izan diren, kalteberatasun-egoeran dauden eta diru-sarrerak bermatzeko errenta edota etxebizitzarako prestazio osagarria jaso ezin duten emakumeei.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak.

Laudio Udalaren 515 zenbakia duen Dekretu bidez onetsi ziren 2018ko martxoaren 16an eta ALHAOn argitaratu ziren 2018ko martxoaren 28an.

Laugarrena. Zenbatekoa.

Indarrean dagoen aurrekontuan (0800-2317-480.09 aurrekontu-partida, "Genero-indarkeriaren biktimentzako larrialdiko laguntzak" izeneko) jasotako zenbatekoa ezingo du gainditu, 2020an 20.000,00 eurokoa baita.

Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea.

2020ko ekitaldi ekonomiko osoan.

Laudio, 2020ko ekainak 29.

Alkate-udalburua, Ander Añibarro Maestre.